

9. Kostuen egitura (Kostuak eta jasangarritasuna)

Uhinak proiektuaren garapena eta funtzionamendua gauzatzeko, beharrezkoa da kostu egitura argi eta orekatua izatea.

Helburua ez da gastuak minimizatzea bakarrik, baizik eta baliabideak modu arduratsuan erabiltzea, proiektuaren iraunkortasuna eta eragin sozial positiboa bermatuz.

Kostu finkoak

Hauek dira proiektua martxan mantentzeko ezinbesteko gastu iraunkorrak:

Taldearen soldata eta gizarte-segurantza kostuak: garatzaileak, diseinatzaileak, komunikazio eta administrazio arduradunak.

Zerbitzari eta azpiegitura teknologikoen kostuak: AWS, Google Cloud edo Microsoft Azure plataformetan datuen segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko.

Software-lizentziak eta babes informatikoa: Notion, Cloudflare, Slack, Figma edo Office 365 bezalako tresnak.

Bulego txiki baten gastuak: alokairua, hornidurak eta zerbitzu orokorrak (Donostia edo Bilbo inguruan).

Kostu aldakorrak

Proiektuaren hazkundearekin batera, hainbat gastu handitu edo murriztu daitezke:

Marketin eta komunikazio kanpainak: sare sozialetan eta online publizitatean egindako inbertsioak.

Transakzio-kostuak: plataforman egindako operazioen bolumenaren arabera.

Bezzeroarentzako laguntza eta zerbitzuen kostuak: erabiltzaileen kopuruaren arabera aldakorrak.

Prestakuntza eta komunitate jarduerak: "Uhinak Day" bezalako ekitaldien edo unibertsitate tailerren antolaketa.

Eskala- eta hedapen-ekonomiak

Uhinak-ek eskala-ekonomien abantailak aprobetxatuko ditu: erabiltzaile gehiago izanik, transakzio bakoitzeko kostua jaitsiko da.

Gainera, azpiegitura teknologiko bera erabiliko da beste zerbitzu batzuk eskaintzeko, hala nola finantza-hezkuntza edukiak edo datu-azterketa erremintak, hedapen-ekonomiak sortuz (ODS 9).

Hasierako Inbertsioa

Hasierako urtean inbertsio nagusiak hauek izango dira:

- Plataforma teknologikoaren garapena eta segurtasun azpiegitura: 40.000 €.
- Komunikazio eta marka estrategia: 10.000 €.
- Lehen urteko bulego eta lizentzia gastuak: 8.000 €.
- Prestakuntza eta komunitate ekintzak: 5.000 €.

Guztira, 63.000 € inguruko hasierako inbertsioa beharko da proiektua abiarazteko.

Inbertsio hori crowdfunding kanpainen, inbertsio sozialeko funtsen eta laguntza publikoen bidez finantzatuko da (Goteo.org, Eusko Jaurlaritza eta BEAZ Bizkaia).

Jasangarritasun sozial eta ingurumenekoa

Uhinak-ek konpromiso argia du bere jardueraren kostu sozial eta ingurumenekoen murrizketarekin:

Plataforma digitala izanik, ez du baliabide fisiko handirik kontsumitzen eta karbono aztarna txikia du.

Lortutako irabazien zati bat berrinbertitzen da finantza-hezkuntza eta gizarte inklusioa sustatzeko (ODS 4 eta 10).

Hornitzaile eta bazkide guztiek etikoki eta jasangarritasunez jarduten duten enprekin lan egitea da printzipio nagusietako bat.

Kostu guzti hauek zaintzen dira ez bakarrik eraginkortasun ekonomikoa lortzeko, baizik eta proiektuaren balio soziala eta etika bermatzeko.